**UDALBATZAK 2009KO MARTXOAREN 27AN EGINIKO OSOKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, bi mila bederatziko martxoaren hogeita zazpiko goizeko 08:35 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Jesus OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Karlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Mª Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du Lucia PERALTA RODRIGUEZ andreak (PP).

Bertan dago udal kontu-hartzaile Txema ARENZANA GARCIA jauna. Gai Zerrendako 4. puntua ikusten ari zirela bilkuratik alde egin du.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 27 DE MARZO DE 2009**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:35 horas del día veintisiete de marzo del año dos mil nueve, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Jesús OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Itsasne ALVARES DE EULATE LASA
- Luis Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

No asiste excusando su asistencia Lucía PERALTA RODRIGUEZ (PP)

Asiste el Interventor Municipal D. Txema ARENZANA GARCÍA. (Se hace constar que abandonó la sesión en el punto nº 4 del Orden del Día).

Bertan dago halaber, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

Asimismo asiste y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**1. Udalbatzak 2008ko azaroaren 28an eta abenduaren 19an eginiko ohiko osoko bilkurei eta 2008ko abenduaren 3an eginiko ezohiko osoko bilkurari dagozkien akten irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

**1.- Lectura y aprobación en su caso de las Actas Ordinarias de fechas 28 de noviembre y 19 de diciembre de 2008, y Extraordinaria de fecha 3 de diciembre de 2008.**

Idazkariak 2008ko azaroaren 28ko eta abenduaren 19ko ohiko osoko bilkurei eta 2008ko abenduaren 3ko ezohiko bilkurari dagozkien aktak irakurri ondoren.

Leidas por el Secretario General las Actas Ordinarias de fechas 28 de noviembre y 19 de diciembre de 2008, y Extraordinaria de fecha 3 de diciembre de 2008.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Idazkariak, Cano andreak (Talde Mistoa) eskatuta, hainbat zuzenketa egin behar direla, esan du.

* El Secretario da cuenta de diversas correcciones a realizar en las actas a instancia de la Sra. Cano (Grupo Mixto).

* Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), era berean, 2008ko azaroaren 28ko aktan hainbat zuzenketa egiteko eskatu du.

* El Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) da cuenta igualmente de varias correcciones a realizar en el acta de fecha 28 de noviembre de 2008.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) une hartan erakutsi duen aktan zuzenketa bat egiteko eskaera egin du. Alabaina, Alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, bere iritziz, mintzaldia ondo jasota dagoela, ez zehatz-mehatz, ezta hitzez hitz, baina mintzaldiaren nondik norakoa ondo aski jasota dagoela. Eta orain gaiaz berriro mintzatzeak ez duela ezer berririk

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) solicita que se incorpore una corrección al acta que lo expone en este acto. Sin embargo el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que, a su entender está bien recogida la intervención, no exhaustiva, ni literalmente, pero el sentido de las intervenciones queda perfectamente reflejado y si la intervención es sobre lo mismo,

ekartzen, eta beraz, ez dela bidezkoa.

no aporta nada y por tanto no procede.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Cano andreak (Talde Mistoa) eta Acosta jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) proposaturiko zuzenketa sartu ondoren,

Incluídas las rectificaciones propuestas a instancia de la Sra. Cano (Grupo Mixto) y del Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak).

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 12 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, EA, PP) eta 8 abtentzioz (Talde Mistoa, Ezker Batua-Berdeak),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 12 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, EA, PP) y 8 abtenciones (Grupo Mixto, Ezker Batua-Berdeak),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

Onartzea 2008ko azaroaren 28ko eta abenduaren 19ko ohiko osoko bilkurei eta 2008ko abenduaren 3ko ezohiko bilkurari dagozkien aktak.

Aprobar las Actas Ordinarias de fechas 28 de noviembre y 19 de diciembre de 2008, y Extraordinaria de fecha 3 de diciembre de 2008.

**2. Alkateak emaniko ebazpenen (145 zk.tik 326ra, biek barne), zinegotzi ordezkariek (210 zk.tik 369 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri ematea.**

**2.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 145 al 326, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs 210 al 369, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Idazkariak Alkateak emaniko ebazpenen (145 zk.tik 326 zk.ra, biak barne), zinegotzi ordezkariek (210 zk.tik 369 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri eman du.

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 145 al 326, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs 210 al 369, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

Ondoren, mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Cano andreak (Talde Mistoa)

* Interviene en euskera la

galdetu du, 311 zk.ko ebazpenaren inguruan —Yolanda Martinez Hernandez andrea izendatzea zerbitzu-eginkizunetan Hiri Mantenimentuko arduradun orokorreko lanpostua okupatzeko— jakin nahiko luke ea Euskarako teknikariak eginiko txostena kontuan hartu den.

Sra. Cano (Grupo Mixto) manifestando que desea conocer, en relación a la resolución nº 311 —Declarar a Dª Yolanda Martínez Hernández en comisión de servicios para ocupar el puesto de Encargado General de Mantenimiento Urbano—, si se ha tenido en cuenta el informe realizado por el técnico de Euskara.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du puntu hori ez dela azalpenak eskatzekoa, ezta zerbait falta edo soberan dagoela adierazteko. Soilik ebazpenen berri emateko baizik. Horietan esaten denarekin ados dagoen edo ez beste kontua da, beste nozbait eztabaidatu beharrekoa, gaineratu du.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que este punto no es para solicitar aclaraciones, ni demandar si falta o sobra algo, es simplemente para dar cuenta de las resoluciones. Si se está de acuerdo o no con su literalidad es otra cosa que habría que debatir en otro momento.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**3. 2008ko Aurrekontuaren likidazioa onartzeko proposamena.**

**3.- Propuesta de aprobación de la Liquidación del Presupuesto Ordinario 2008.**

Batzordekideek 2008ko Aurrekontuaren likidazioari dagokion espedientea ikusi dute, bertan, besteak beste, udal kontu-hartzaileak 2009ko martxoaren 6an eginiko txostena dago.

Visto el expediente correspondiente a la Liquidación del Presupuesto Ordinario 2008, en el que consta el informe del Sr. Interventor de fecha 6 de marzo de 2009.

Udalbatzari ondoko likidazio-dekretuen berri eman zaio:

Se da cuenta al Pleno de la Corporación de los Decretos de Liquidación:

- Adinekoen egoitzakoa.
- Errenteria Musikal musikaren

- de la Residencia de Ancianos,
- del Patronato municipal de música

udal patronatukoa.

- Kirolaren udal patronatukoa.

Ogasuna batzordearen proposamena ikusitakoan.

Mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du bere taldek ez ditzakeela onar 2008ko Aurrekontuaren likidazioa. Eta ez dute onartuko, euren ustez, 2008ko Aurrekontua ez delako zorrotz eta arduraz kudeatu. "Olentzero edo Errege Magoak pertsonai kutunak dira Eguberriak inguruan, baina ez dira fidatzekoak Aurrekontua kudeatzeko garaian", esan du. Eta zuek —dio— eguberri inguruko pertsonai hauen eskuetan utzi zenuten ekitaldi horretako Aurrekontua kudeatzea. Halaber ezin dute onar likidazio hau, zoritxarrez, "zuek gaur-gaurkoz ez zaretelako gauza egoera horretatik nola irtetea pentsatzen duten esateko". Benetan "eraikitzeko" asmorik bazenute osoko bilkuran honetan egoerari aurre egiteko lehen oinarriak aurkeztu beharko zenituzkete, gauzak egiteko modu berri bat alegia. Eta egintza horretan ardurarik gehien Alkate jaunak du, eta zure talde politikoak Udal honetako talde nagusia izanik, nabarmendu du. Eta hori esaten du nahiz eta pertsona modura ezer ez duten aurka, baizik eta erantzukizunez jarduteko dei bat egin nahi dutelako, eta nahiz eta Alkateak ukatzen dien balizko jarrera "eraikitzaile" hori. Hori

"Errenteria Musical" y

- del Patronato municipal de deportes.

Vista la propuesta de la Comisión de Hacienda.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifestando que, su Grupo no puede aprobar la liquidación del presupuesto 2008. No lo van a hacer dado que han echado de menos rigor y responsabilidad en la gestión del mismo. El Olentzero o los Reyes Magos son personajes entrañables de la escenografía navideña, pero a los que no se les puede fiar una gestión presupuestaria. Y ustedes fiaron este ejercicio presupuestario a estos personajes navideños. Tampoco pueden aprobar esta liquidación porque desgraciadamente ustedes no son capaces de decirles a día de hoy como piensan afrontar la actual situación. Si ustedes realmente tuviesen "afán constructivo" plantearían hoy en este pleno unas primeras bases para afrontar una situación que necesariamente pasa por nuevas formas de hacer las cosas. Y en eso la responsabilidad principal es de usted señor alcalde y de su grupo como fuerza mayoritaria en este ayuntamiento. Y al decir esto no lo hacen desde ninguna fijación contra su persona, sino desde un llamamiento a su sentido de responsabilidad que ellos dan por hecho, aunque usted les niegue un supuesto "afán

horrela, erantzukizunez jardunez, bere aburuz, Gobernu Taldeak lehenik bereganatu beharko luke Udal honen egoera ekonomikoa larria dela, eta ez hartu kriston amorrualdia Ezker Batua-Berdeak-ek egoera horren berri eman duelako. Izan ere, eurek ez dute ezer asmatu. 2008ko Aurrekontua ixtean 500.000 € hurbileko defizita azaltzen da. Aurreko urteko kudeaketak lehengo urteetako superabita jan du eta adierazitako defizita eragin du. Egoera txarra da eta zoritxarrez EB-Berdearentzat ez da inolako zantzurik etorkizunean gauzak hobeto egingo direnik. Zuek, ziur aski, "alarmistatzat" edo "alderdikoitzat" joko nauzue, baina hori baino oinarri sendo batzuekin EB-Bek uste du "benetako inbertsio"en inguruko gastuekin, VI. Kapituluarekin, gertatutakoa zentzugabekeria baino ez dela. Izan ere, aldez aurretik ikusitakotik soilik %47 exekutatu da, 2007an egindakoa baino %13 gutxiago. Egia da gastu horiek gauzatzea zaila zela, are zailagoak kontuan hartzen badute diru-sarreren VI. kapituluan soilik 2.593.564,70 € jaso dituztela aldez aurretik aurreikusitako 10.245.025 euroetatik (%25), eta hori bereziki larria da. Orduan, esandako guztiaren inguruan zer nolako erantzukizuna hartzeko zaudete prest?, Ba, ziur aski, batere ez. Horrezaz gain, Aldundiak %12 gutxiago jarriko duela kontuan hartu behar da, eta datozen ekitaldietan Aldundiari 2.920.000 € itzuli behar zaizkiola. Eta, azkenean, honen guztiaren emaitza zein den? Ba, Udalak ez dezakeela ia-ia inolako inbertsiorik egin

constructivo" en su actividad municipal. Es en ese "sentido de responsabilidad" donde en primer lugar ustedes debiesen asumir que la situación económica por la que atraviesa este ayuntamiento es grave y no coger una "pataleta" porque Ezker Batua-Berdeak haga pública esa situación. Ellos no han inventado nada. El cierre del presupuesto 2008 tiene como resultado un déficit cercano a los 500.000€. la gestión realizada este pasado año se ha "comido" superávit anteriores y ha generado el déficit señalado. La situación es mala y desgraciadamente para EB-B nada indica que se mejore hacia futuro. Ustedes, posiblemente, les acusarán de "alarmistas" y de "tendenciosos" pero con unas bases más sólidas, desde EB-B tienen que calificar de despropósito lo ocurrido en relación al Capítulo VI de gastos referente a "inversiones reales". Sólo se ha ejecutado un 47% de lo presupuestado, un 13% menos de lo ejecutado en 2007. Ciertamente eran unos gastos de inversión que difícilmente se podían llevar a cabo, más, sí tienen en cuenta que en relación a los ingresos, el Capítulo VI de enajenación de las inversiones reales sólo se han recaudado 2.593.564,70 de los 10.245.025 presupuestados (un 25%) y esto es especialmente grave. ¿Qué responsabilidad están dispuestos a asumir ante lo apuntado? : posiblemente ninguna. A lo anterior hay que sumar la menor aportación de Diputación, un 12% menos, y que en próximos ejercicios incluso hay que devolver dinero a Diputación por una

krediturik hartu gabe. Hots, Udal honek jarduketa berriak burutzeko ahalmena serioski baldintzaturik dauka edo hutsaren hurrengoa da, are gehiago ohiko gastuak etengabe igotzen ari direla konturatzen badira. Beraz, hori guztiagatik, bere taldeak ez du sostengatuko 2008ko Aurrekontua likidatzeko proposamena.

cantidad de 2.920.000 € en próximos ejercicios. ¿Cuál es el resultado de todo esto?, pues que el Ayuntamiento no puede realizar prácticamente inversión alguna sin recurrir al crédito. La capacidad propia y real de este Ayuntamiento de ejecutar y llevar a la práctica nuevas actuaciones está seriamente condicionada cuando no prácticamente anulada, máxime sí observan el crecimiento continuado dentro de los gastos ordinarios. Por todo ello este grupo no apoyará la propuesta de liquidación del presupuesto 2008.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du deigarria egiten zaiola Ferradas jaunaren (Ezker Batua-Berdeak) mintzaldia, izan ere, bi aldeko paperak egiten ditu. Hau da, egoeraren berri ematen du eta antzematen dio nolako erantzuna emango zaion. Berak ez du haserrealdirik hartu, inolaz ere, Ezker Batua-Berdeak-ek emaniko prentsaurrekoagatik, ez du, ezta erreakzionatu ere egin, egin duten gauza bakarra, beste edozein mintzaldiri egiten zaion modura, erantzun da. Horri haserrealdia deitzen badio, eskubidea du, baina bera ez dator bat termino horrekin. Berak uste du kalean zein hemen mintzatzen denean zuzen mintzatzen dela, batzuetan gogorxeagoa izan beharko zukeela pentsatzen badu ere, baina bakoitza den bezalakoa da, gaineratu du. Bestalde, EBko ordezkariak aurrekontuez egin dituen balorazio zenbait zuzenak dira, alabaina haren taldea dagoen kategorian egonda erakusten du

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que le llama la atención en la intervención del Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) que se pone en los dos papeles, esto es, expone una situación e intuye la respuesta que se le va a dar. Él no ha cogido ninguna pataleta por la rueda de prensa que Ezker Batua-Berdeak ha dado, si ni siquiera ha reaccionado, lo único que ha hecho ha sido responder como a cualquier otra intervención que haya habido. Si a eso le llama pataleta, está en su derecho, pero no está de acuerdo con el término. Cree que en sus intervenciones, tanto aquí como en la calle, es muy correcto, a veces incluso peca de ello y debería ser un poco más rotundo, pero cada cual tiene el carácter que tiene. Por otra parte, en el análisis que hace el representante de EB de los presupuestos, parte de las valoraciones que hace son correctas, pero la categoría en la que está su grupo denota que están un poco

oraindik berde xamar daudela, eta horregatik egiten ditu egiten dituen analisiak. Uste du erabiltzen duen termino zenbait nahasketa sortzen duela. Bera pertsonalki ez da egoera ekonomikoaren arduradun sentitzen, nahiz eta, herritar ororen gisan, punitzea tokatzen zaion. Zalantzarik gabe, foru-dirubilketa 2.905.000.- euro jaitsiko da. Izan ere, Aldundiak egiten dituen gauza handien artean, besteak beste, Tokiko Finantziaziorako Foru Funtsa bideratu da, eta hori murrizten bada, gainontzeko erakundeei erreskan eragiten dio; hots, Eusko Jaurlaritzari gutxiago ematen dio eta udalei gutxiago ematen die. Egia da —dio— hiru milioi gutxiago egongo direla, baina ziurtatzen du ez dituela etxera eraman edo antzeko zerbait egin. Horrezaz gain, denbora berean zerga-bilketako beste diru-iturriak, esaterako, eraikuntza eta abarrekoak murrizten badira, dena gelditu edo izozten da, eta orain dauden lekura eraman ditu. Orduan, hobeto egongo lirateke gastuen %100 gastatu izan balute? Ez, askosaz okerrago egongo lirateke, eta zuhurtasunez jardun dutelako geratu dituzte gastu mota guztiak joan den ekainetik hona. Ondorioz, defizita txikiagoa da eta borobilduz 500.000.- eurotan geratu da. Eta, berriro dio, EB-Beko ordezkariak hori kudeaketa txarra egitea dela uste badu, libre da, baina bera ez dator inondik ere bat iritzi horrekin. Egin gabe utz zezaketen gastu guztiak utzi dituzte, hain zuzen, diru-sarrerak behera egingo zutela ikusi zutelako. Edozein etxetako ekonomiarekin gauza bera

verdes y de ahí el análisis que hace, cree que algunos de los términos que utiliza generan cierta confusión. Personalmente no se siente responsable de la situación económica global en la que se encuentran, aunque desde luego la tiene que sufrir, como la sufren todos los ciudadanos y ciudadanas. Indudablemente si la recaudación foral cae 2.905.000,- euros, si resulta que los grandes recursos que recauda Diputación para, entre otras cosas, atender al Fondo Foral de Financiación Local caen, lo que hace es trasladar en cascada a las demás entidades, aporta menos al Gobierno Vasco y aporta menos a los Ayuntamientos. Bien es cierto que hay tres millones menos, pero lo que asegura es que no se los ha llevado a casa ni nada por el estilo. Si al mismo tiempo otras fuentes de recaudación de impuestos, como por ejemplo la construcción, etc., cae, se paraliza o se congela, eso les pone en la tesitura en que están. ¿Estarían mejor si hubiesen ejecutado el 100% de lo presupuestado en gastos?, no, estarían mucho peor, precisamente la prudencia es lo que le ha hecho paralizar todo tipo de gastos paralizables a partir del pasado mes de junio. Eso ha hecho que el déficit sea menor y se haya quedado, redondeando, en 500.000,- euros. Insiste en que si en eso, el portavoz de EB-B quiere ver mala gestión, es libre de hacerlo, personalmente en absoluto comparte esa opinión. Es tan simple como que se han parado los gastos que era posible parar, porque veían que iban

gertatuko litzateke, eta beraz, esan beharko dio zer egin duen gaizki, gaineratu du.

a caer los ingresos. Cualquier economía doméstica llegaría a la misma conclusión y por tanto, tendrá que decirle qué es lo que han hecho mal.

* Cano andreak (Talde Mistoa) adierazi duenez, eurek egoera aztertu ondoren, ikusten dute hainbat kezka eragiten diela. Izan ere, kezkatzekoa baita ikusita diru-sarreretan lortutako %ekoa zenbat izan den, eta, halaber, gastuetan izandakoa zenbatekoa izan den. Berak ez ditu errepikatuko EB-Beko kideak aitatu dituen kopuruak, baina eurei ere berdintsuak ateratzen zaizkie. Bestalde, VI. kapituluan diru-sarrera eta gastuen aldetik antzeko proportzioak ateratzen zaizkie, eta beraz, arazo berdinen aurrean urtero planteamendu berdinak egiten dituztela ikusten dute. Horregatik, aurreko urteetan bezalaxe, kudeaketa eskasa egin dela uste dute. Zati bat —dio—, baliteke, krisiari eragotz ahal izatea, baina, euren ustez, azkeneko urteetan arazo berdinak ari dira errepikatzen. Eta horrek adierazten du kudeaketa egiteko modua ez dela ona, ez dela egokia izan. Eta aurrerantzean gauzak hobetuko ez direnez, uste dute garaia dela egoera hori konpontzen hasteko. Bere iritziz, une hau ona izango litzateke bestelako politika ekonomiko bati ateak irekitzeko, eta modu horretan, planteamendu aurrerakoiekin hasi beharko litzatekeela uste dute.

* Interviene en euskera la Sra. Cano (Grupo Mixto) manifestando que, tras haber estudiado el tema, éste les genera muchas preocupaciones, puesto que creen que es de inquietarse viendo cuánto ha sido el porcentaje ejecutado en lo que se refiere a los ingresos, así como a cuánto ascienden los gastos. Ella no va a repetir las cifras dadas por el miembro de EB-B, porque les salen unas cantidades parecidas. Asimismo, en el Capitulo VI, les salen unas proporciones parecidas en lo que se refiere a ingresos y gastos. En ese sentido ven que ante los mismos problemas todos los años se realizan los mismos planteamientos. Creen que, como en los años precedentes, eso es debido a una mala gestión. Piensan que una parte se le puede atribuir a la crisis, pero a su juicio en los últimos años se han repetido los mismos problemas. Eso significa que la forma de gestionar no ha sido buena, que no ha sido adecuada. Y como creen que en un futuro próximo la situación no se va a modificar, consideran que ya es hora de empezar a cambiar las cosas. A su juicio este sería un buen momento para abrir las puertas a otra política económica, y de esa forma, empezar con planteamientos más progresistas.

* Oficialdegui jaunak (Socialistas Vascos-Euskal

* Interviene el Sr. Oficialdegui (Socialistas Vascos-

Sozialistak) adierazi du Alkateak lehen erantzun duela. Berak soilik argitu nahi du aparteko egoera hau, neurri handi batean, mundu mailan dagoen krisiak eragina dela. Gainera, esan nahi du aparteko egoera hau, hain da apartekoa, non Errenterian alkate sozialista izan den mende laurden bat baino gehiagon sekula ez zela horrelakorik gertatu. Beraz, salbuespena, krisiak eragin duela uste du.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) uste du norbaitek *"bendita crisis que todo lo justifica"* esan beharko zukeela. Izan ere, 2008ko Aurrekontua eztabaidatu zutenean, talderen batek adierazi zuen diru-sarreren atalean jasotako %100 exekutatzea oso zaila zela, hau da, bai VI. kapituluan jasotakoa, bai beste erakundeek egiten dituzten ekarpenetan ere. Ez zieten kasurik egin, eta zenbait komunikabidetan deitzen jarraitzen dietena deitu zien. Edonola ere, Alkate jaunak jakitera eman du bere aurrezpen-ahalmena goraipatzeko modukoa dela, eta, nolabait jarduera murriztu izanak defizit txikiagoa eragin duela. Berak afera honekiko soilik bi kontu helarazi nahi dizkio: lehenengoa, zuk edo zuek inbertsioei atea itxi badiezue, kaxoian hartzeko ezer ez zegoelako izan da, izan ere, gauzatu dituzuen diru-sarrerekin ezinezkoa baitzen aurreikusitako inbertsioak egitea. Jakina, beharrak bertute bihur litezke, baina errealitatea oso egoskorra da, eta, kudeaketa txarra ez da bertute bat, gaineratu du. Galdera zuzena egingo dio, eta,

Euskal Sozialistak) manifestando que, el Alcalde ya ha respondido anteriormente y simplemente quiere aclarar que esta situación extraordinaria se debe en gran medida a la crisis mundial existente. Además quiere decir que la situación es tan extraordinaria que en más de un cuarto de siglo de alcaldía socialista en Errenteria, nunca había ocurrido esto, la excepción ha venido con la crisis.

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) señala que algunos deberían decir "bendita crisis que todo lo justifica". Algunos grupos, en la discusión del Presupuesto 2008, señalaban la dificultad de llegar a la ejecución del 100% de lo reflejado en el capítulo de ingresos, tanto de lo recogido en el capítulo VI, como en lo recogido en aportaciones de otras instituciones. No se les hizo caso y se les llamaba lo que se les sigue llamando en algunos medios. En todo caso, el Sr. Alcalde ha sacado a relucir que su capacidad de ahorro es para alabar y que de alguna manera la reducción de la actividad ha conseguido que el déficit sea menor. Simplemente señalarle dos cuestiones, la primera que si usted o ustedes han cerrado el cajón para inversiones ha sido porque no quedaba nada para coger en el cajón, con el nivel de ingresos que han ejecutado era imposible realizar las inversiones previstas. Evidentemente, de la necesidad se puede hacer virtud, el problema es que la realidad es muy tozuda y una gestión deficiente no es virtud, es simplemente una gestión deficiente.

erantzuna ere halaxekoa izatea mahiko luke, hots, saihetsetik ibili gabe edo ortzadarraren koloreetan barrena ibili gabe. Horrela, kontu-hartzaileak eginiko txostenean ohar bat egiten da, eta berari gustatuko litzaioke jakitea, 2008ko bigarren seihilekoan inbertsioak oso urriak izan direlako, eta, aldiz, kudeaketa-kostuak araberakoak izango liratekeen baino askozaz handiagoak, ea Alkateak zer iritzi duen?. Galdera hori Alkate jaunari Ogasuna batzordean egin zion, eta gaur berriro errepikatzen dio. Izan ere, kostuak araberakoak baino askozaz handiagoak izan dira.

Va a hacerle una pregunta directa y le gustaría una respuesta en la misma línea, sin que se vaya por los cerros de Ubeda o haga un recorrido por los colores del Arco Iris. En ese sentido decirle que el Sr. Interventor en su informe hace una apreciación y le gustaría saber su opinión al respecto, al decir que en el segundo semestre del 2008 las inversiones se han venido realizando a cuentagotas con un coste de gestión muy superior al que sería razonable. Esta pregunta se la hizo al Sr. Alcalde en la Comisión de Hacienda y hoy se la vuelve a hacer y le repite, con un coste de gestión muy superior al que sería razonable.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du berak normalean txostenak ez dituela komentatzen, alabaina, kontu jakina da baliabide gutxi daudenean kudeaketak esfortzu gehiago eskatzen duela. Hots, gutxiago interbenitzen bada, ahalegin tekniko, jarraipeneko, etab. handiagoak izan behar dute. Inork ez baitezake gastatu ez duenik, baina Aurrekontua egiten denean eta onartzeko Udalbatzari aurkezten zaionean, beti gehiago gastatu behar dela esaten diete. Hau da, inbertsioetan gutxi sartzen badute, gehiago sartzeko esaten diete, eta gehiago sartu eta gauzatu ezin badute, orduan, kritikatu egiten dituzte. Eta, berriro dio, ezin dutela gastatu ez dutenik. Eta Udalak nondik jasotzen duen, ba, lehenik hurbilenekotik, Ordenantza fiskaletatik alegia. Zergak igo behar direla esaten badute, orduan,

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que generalmente no suele comentar los informes, pero efectivamente, cuando se tienen menos recursos la gestión es más esforzada, a menor nivel de intervención los esfuerzos técnicos, de seguimiento, etc., son mayores. Nadie puede gastar lo que no tiene, pero cuando se confeccionan los presupuestos y se presentan al Pleno para su aprobación, siempre se les dice que hay que gastar más. Esto es, si se meten pocas inversiones, se les dice que hay que meter más, y cuando se meten más y luego la realidad no permite hacerlas, también se critica. Insiste en que no pueden gastar aquello que no tienen, y ¿de donde recauda el Ayuntamiento?, en primer lugar por proximidad, de las distintas Ordenanzas Fiscales, si se dice de subir los impuestos, lógicamente no

jakina, ez da begi onez ikusten; ez liteke arinegi ibili, arrazoiz eta egoki baizik, esaten diote. Bestalde, Foru Aldundiak betitik egiten du berari dagokion foru-funtsari dagokion aportazioa, eta, berriro dio, hori begi bistako arrazoiengatik jaisten bada, eurek guardasola ireki eta erauntsia pasa dadin itxaron beste erremediorik ez dute. Beste baliabide batzuk finalistak deiturikoak dira, une jakin batean Eusko Jaurlaritzatik, Estatuko Gobernutik, Europatik, etab. etor litezkeenak. Bestalde, gauza jakin batzuetarako diru-funtsak daudenean, erne ibiltzen dira horiek jasotzeko. Horrela, noizbait hitz egin izan dute Zapatero-planaz, hots, Estatuko diru-funtsez, baina badirudi horiek garrantziarik gabeko edo zerbait txarra direla. Aldiz, berak ongi etorria ematen dio sei milioi eta erdi horiei. Pena datorren urtean, ziur aski, ez direlako etorriko, zeren eta, Errenteriari, antzeko kopurua denez, urte bateko inbertsio-plana soluzionatzen baitiote. Eta, berriro dio, jasotzen ez bada ez litekeela gastatu. Eta bestalde, aurrekontuak egiten dituztenean hau eta bestea sartu ez delako kritikatzen dituzte, orduan, gauza bat kritikatzen bada, bestea ez dela egin beharko, uste du. Ohiko gastuei dagokionez, berriz, pentsatzen du gerrikoa estutzeko garaiak direla eta ahalik eta doituenak egin eta kendu beharrekoak kentzekoa, esaterako, argia, ura, garbitasuna, zabor-bilketa, soldatak, etab. Gainera, langileria gastuen I. kapituluan, 2009ko

parece adecuado, no se pueden subir alegremente, sino racional y documentadamente. Existe una aportación que se puede denominar cautiva, que es el Fondo Foral de Diputación, e insiste una vez más en que si éste baja por razones claras y objetivas, no queda más que abrir el paraguas y esperar a que escampe. Otra serie de recursos son por ejemplo los finalistas, que pueden venir en un momento determinado bien del Gobierno Vasco, del Central, de la Comunidad Europea, etc. Cuando hay aportaciones para fines determinados se intenta estar a todas. Han hablado en algún momento del plan denominado Zapatero, esto es el Fondo Estatal de Financiación Local, y parece que sea algo espúrio o malo, sin embargo él piensa que bienvenidos sean esos más de seis millones y medio de euros. La pena es que para el año que viene seguramente no van a existir, porque a Errenteria le resuelve el plan de inversiones de un año, ya que viene a ser una cantidad equivalente. Insiste en que aquello que no se recauda no se puede gastar, y como por otro lado, cuando se hacen los presupuestos se critica que no se incluya ésta y aquella inversión, habrá que aclararse y si se critica lo uno, no se puede criticar lo otro. En cuanto al gasto corriente, indudablemente están en una época en que habrá que apretarse el cinturón e ir a los gastos lo mas tasados posibles, sabiendo que hay algunos de los que no se puede prescindir, como pueden ser la luz, el agua, la limpieza, la recogida de basuras, los salarios. Por cierto, en el

aurrekontuan, 2008koarekin konparatuz, milioi bat eta erdi baino gehiagoko aldea dago. Horixe da egoera, nabarmendu du.

* Murua jaunak (Talde Mistoa) adierazi du lehenik bat datozen kontuak aitatuko dituela. Hori horrela, uste du talde guztiak bat etor litezkeela, Udal honetako egoera ekonomiko-finantzieroari dagokionean, argi gorri guztiak piztu direla esateko garaian. Hortik aurrera ikusten dute 2008ko kontuak onartzeko eman dieten likidazio-dokumentuak 500.000.- euroko defizita ematen duela, baina, halaber, esan behar dute defizita hori aurrekontua gutxi exekutatu izanak eragin duela. Hau da, ezer gutxi egiteaz gainera, 500.000.- euroko defizita eragin dute. Datu zenbait eman dira, eta, bere iritziz, interesgarria da aitatzea, aurrekontua onartu zenean, zer esan zitzaien aurrekontua saltzeko orduan, bestalde, inbertsio horiek kudeatu behar dituzten saileko arduradunengan ia-ia inolako harrerarik izan ez duen kontua. Horren adibide da —dio— Ingurumenak %6 besterik ez gastatu izana, klima-aldaketaz kezkatuta dauden egoera honetan, eta inbertsioen barruan izen zehatz horrekin partida bat zeukalarik. Horixe da Gobernu Talde honek herritarren aurrean ematen duen irudia, gaineratu du. Datu horiez gain, bateren bati igoal anekdotikoak irudituko zaizkio, baina, bere iritziz, komenigarria da nabardura interesgarri bat egitea, izan ere, Gobernu Taldea kolorez aldatu baitzen. Lehen alderdi

capítulo I de personal, hay un gasto fijo ya evaluado de más de un millón y medio en el presupuesto 2009 sobre el del 2008. Esa es la situación.

* Interviene el Sr. Murua (Grupo Mixto) manifestando que va a empezar por las coincidencias, cree que todos los grupos podrían coincidir en que se han encendido todas las luces en este Ayuntamiento de cara a la situación económico-financiera en que se encuentra. A partir de ahí, hay que reconocer que el documento de liquidación que se les ha facilitado para la aprobación de las cuentas 2008 arroja un déficit de 500.000,- euros, pero también hay que decir que ese déficit viene dado por una baja ejecución del presupuesto. Esto es, además de no hacer prácticamente nada, han generado un déficit de 500.000,- euros. Se han dado una serie de datos y cree que es interesante comentar lo que se vendió en su día cuando se aprobó este presupuesto, algo que prácticamente no ha tenido ninguna receptividad por parte de los responsables de los departamentos que tienen que gestionar esas inversiones. Como ejemplo podría poner Medio Ambiente, apartado en el que se ha ejecutado única y exclusivamente el 6%, en una situación en la que todos están preocupados por el cambio climático y habiendo una partida específica con ese nombre dentro de inversiones, esa es la sensibilidad que traslada este Equipo de Gobierno a sus ciudadanos. Pero, fuera de estos datos, que a lo mejor alguien

Sozialistak eta Ezker Batuak osatzen zuten, eta legegintzaldi honetan alderdi Sozialistak, Eusko Alderdi Jeltzaileak eta Eusko Alkartasunak osatu zuten. Bere aburuz, garrantzitsua da gogoraraztea azken bi alderdi hauek Gobernu Taldeari egin dioten ekarpena, eta EAJ eta EAk lehen esaten zutena. Gauza zenbaitetan, bere irudiko, erdiz erdi azertatzen zuten eta aurreko gobernu orori egur ederra ematen zioten. Hots, ez zuten soilik aurreko legegintzaldikoa kritikatzen, baizik eta baita aurregokoak ere, Udal honek exekutatzeko gauza ez zen inbertsioak jasotzen zituela aurrekontuetan — hirigintzako diru-sarrerak neurrigabe puztuz— esaten zuten. Beraz, egurra gobernu orori. Gero, EAJ eta EAk Gobernu Talde berri honi egin asmo zioten aportazioa zera zen: ez zutela utziko inbertsioak lehen egiten ziren bezala egitea, inbertsioen kapituluan politika arrazoizkoagoa aplikatuko zutela. Eta inbertsio partida horien barruan nabarmentzeko modukoa da hiru milioi eta erdiko partida babes ofizialeko etxebizitzak egiteko zela. Gainera, gogoratu behar da hiru milioi eta erdiko partida zehatz hura Ezker Abertzaleko zinegotziek —Udal honek etxebizitzen aferan politika okerra egin zuelako— eginiko erreklamazio bat dela medio, eta auzitegiek arrazoia eman ziotelako, jaso behar zela aurrekontuan. Horrezaz gain, EAko ordezkariak, mintzaldia amaitzeko ondoko esaldia esan zuen: "Udal honetan azken bolada honetan egin den aurrekonturik errealena

piensa que son anecdóticos, conviene hacer una matización a su juicio interesante y es que el Equipo de Gobierno cambia de color. Anteriormente estaba conformado por el Partido Socialista e Izquierda Unida, y a partir de la nueva legislatura está conformado por el Partido Socialista, el Partido Nacionalista Vasco y EA. Cree que es importante recordar cuál es la aportación realizada por estos dos partidos al Equipo de Gobierno y lo que decían el PNV y EA. En algunas cosas, al hacer un análisis del contexto, cree que acertaban plenamente y no paraban de repartir leña a todos los Gobiernos anteriores. No solo en la legislatura anterior, sino los Equipos de Gobierno precedentes se dedicaban a hinchar de una manera desmesurada los ingresos urbanísticos para vender unos presupuestos con unos niveles de inversión que este Ayuntamiento era incapaz de realizar, es decir, caña para todos. Luego, la intención o la aportación que iban a hacer PNV y EA a este nuevo Equipo de Gobierno era, no dejar hacer las inversiones como se habían hecho anteriormente, aplicar una política más racional en el capítulo de inversiones y dentro de esa partida de inversiones mencionaban como un aspecto importante a subrayar la partida concreta de tres millones y medio para la realización de viviendas de protección oficial. Cree que hay que recordar que esta partida viene motivada por una reclamación que hacen los concejales de la Izquierda Abertzale de cara a la política

da”. EAJk, ildo beretik, denei egurra emanez, azterketa egiteko garaian lehen gertatutakoaz, EAk esan zituen gauza bertsuak adierazi zituen, hau da, burutu ezin diren aurrekontuak dira, inork sinets ez ditzakeen diru-sarrera aurreikuspenak egin dira, abar eta abar. Gero, aurreko legegintzaldian izandako aurrekontuak dezente hobetzen zituen kontsentsuatutako aurrekontuak egin baziren, eurei esker egin zirela esan zuen. Horixe da, grafikoki, esan zutena bi talde horiek 2008ko aurrekontua onartu zenean, zeinaren emaitza gaur onartzeko proposatzen baitiete. Eta PSEk zer esan zuen? Ba, bidai lagunak aldatzen zituen eta uste dut jarrera nahiko autista izan zuela. Izan ere, ez zuen kasurik egin bidailagun berriek eman zuten egurrari, eta ez zuen ezer aitatu. Berak ez daki isiltzen denak amore ematen duelako, edo une horretan ez zelako komenigarria behatz topatzen hastea izan zen. Soilik, beste behingoz, aurrekontu hauek “zuhur jardunez” eginak zirela esan zuen. Hitz hau, bere irudiko, maiz samar erabiltzen da, eta azkenean, bere edukia ustu egin da, diru-sarreren kapituluan, lehengo dirutan, bi milioi pezeta jaso gabe utzi zirenean. Berak pezeta aitatzen du jendeak hobeto ulertzen duela uste duelako. Hots, ahaztu egin zuen jasotako egurra eta elkarrekin bidea egiteko asmoarekin nabarmendu egin zuen gobernuko bi bazkide berriek eginiko ekarpena. Eta azkenean, goraipatu zuen, EAko zinegotziarekin bat etorriz, 3,5 milioiko partida urte honetan egin beharreko ahalegin

errónea que este Ayuntamiento lleva en el tema de la vivienda y los juzgados le dan la razón. Y termina su exposición con la siguiente frase, “cree que es uno de los presupuestos más reales de los últimos tiempos en este Ayuntamiento”, esto lo dijo EA. El PNV en la misma línea, leña para todos, vino a decir lo mismo que EA en cuanto al análisis de lo ocurrido anteriormente, es decir, han sido unos presupuestos irrealizables, con unas previsiones de ingresos que no se las cree nadie, etc., etc. Luego, habló reconociendo la bondad de su participación diciendo que el presupuesto que se consensuó era sustancialmente mejor que los habidos en las legislaturas anteriores. Esto viene a ser gráficamente lo que dijeron estos dos Grupos cuando se aprobó el presupuesto 2008, cuyo resultado se propone hoy para su aprobación. ¿Qué dijo el PSE?, cambiaba de compañeros de viaje y cree que tuvo una postura un tanto autista, no hizo caso al reparto de leña que habían hecho sus nuevos compañeros de viaje y no hizo ninguna mención al respecto. No sabe si quien calla otorga o es que en ese momento no era conveniente empezar a andar poniéndose zancadillas. Unicamente se centró otra vez en que en este presupuesto la previsión de ingresos se hacía con carácter de “prudencia”, una palabra que a su juicio se utiliza con bastante frecuencia y al final se vacía de contenido, cuando en el capítulo de ingresos se dejaron de recaudar dos mil millones de las antiguas pesetas, lo dice en pesetas

handia suposatzen zuela esanez. Gainera, 2009an errepikatuko zituztela ere esan zuen. Berak ez daki PSEk gaur egun eusten dion baieztapen hari, baina hori esan zuten aurrekontua onartzeko eztabaidan, gaineratu du. Hori horrela, berak zera galdetzen du: zer aportatu diote gobernukide berriek benetan Gobernu Taldeari? Eurek ikusten dute zer aportatu duten: lehen aitatu duten defizita, Aurrekontuan portzentaje txikia exekutatu, eta dena krisiak baldintzatu edo eragin duela esaten dute. Alabaina, berak likidazio-espedientearen 3. orrialdean adierazten dena irakurriko du, diru-sarreren aurreikuspenei buruz esan dena alegia: "aurreko ekitaldietako joera berretsiz, 2007ko aurrekontuaren %20 exekutatu zen; 2006an, berriz, %36; 2005ean %18, eta horiek behin eta berriz ohartarazi nituen Aurrekontuei buruz eginiko txostenetan". Hau da, krisiari buruz hitz egin liteke, argi eta garbi hor dagoen faktore bat delako, baina teknikariak 2005az geroztik ohartarazten ari zen egiten ari ziren diru-sarreren aurreikuspenak ez zirela bidezkoak, gaineratu du. EAJ eta EA, garai hartan, bat zetozen Udaleko teknikariak egiten zituen aurreikuspenekin. Eta eurek esan behar dute batzuetan teknikariek eginiko txostenak aldarean ipintzen dituztela, eta beste batzuetan, ostera, kaxoi batean ezkutatzen dituztela. Hauxe da –dio- 2008ko Aurrekontuaren likidazioak erakusten dien errealitatea. Eta 2009ko berriari dagokionez, aldiz, berak

porque cree que la gente lo entiende mejor. Se olvidó de la leña recibida y en el ánimo de caminar juntos destacó la aportación de los dos nuevos socios de gobierno y al final vino a destacar, coincidiendo también con el Concejal de EA, en que la partida de los 3,5 millones es un esfuerzo que se va a hacer dentro de ese año, y llega a decir incluso que se repetirán en el año 2009. No sabe si el PSE mantendrá esa afirmación a día de hoy, pero eso es lo que dijeron en el debate del Presupuesto. Se pregunta, ¿qué es lo que realmente ha aportado este cambio de socios en el Equipo de Gobierno?, ya se ha visto lo aportado, el déficit que se ha mencionado, un bajo porcentaje en la ejecución del Presupuesto, y todo ello condicionado o suavizado por la crisis que tanto se menciona. Pero, se va a permitir dar lectura a algo que consta dentro del expediente de la liquidación, en la página 3 refiriéndose a la previsión de ingresos, dice: "corroborando la tendencia de ejercicios anteriores, en el 2007 se ejecutó un 20%; en el 2006 un 36%; en el 2005 un 18%, que había sido advertida reiteradamente en todos mis informes a los Presupuestos". Es decir, se puede hablar de la crisis, que evidentemente es una variable, es un factor que está ahí, pero existen documentos en los cuales el técnico les está advirtiendo desde el año 2005 que las previsiones de ingresos que se estaban haciendo no eran correctas. PNV y EA en aquella época también coincidían con la apreciación que el técnico del

ez daki zirriborroan zerbait aurreratzen ari den, zeina, Foru Aldundiak ezartzen dituen epeen arabera, urtarrilean indarrean egon beharko zukeen, eta jada apirilean daude. Bere iritziz, talde politikoek uste badute Udala egoera larrian dagoela, 2009ko aurrekontua egikaritzearren, beste egoera batera eramango dituen egiturari dagozkion neurriak hartzen hasi beharko dute. Izan ere, argi eta garbi dago, aurreko urteetako inertziari jarraitzen badiote, herri honetako herritarren bizi-baldintzak hobetzeko obrak egiteko ahalmena hutsaren hurrengoa izango dela. Inertziak erakusten du urtetik urtera murrizten doala. Horrela, 2008an ohiko gastuak %8 igo dira, eta ohiko diru-sarrerak, berriz, bi puntu jaitsi. Ondorioz, uste du egoera honek hausnarketa sakona eta serioa eskatzen duela, hain zuzen, ikusteko nola Udal honek egin diezaiokeen aurre behar horiei eta herriko herritarren bizi-maila hobetzeko beharrei. Eurek itxaroten dute 2009ko zirriborroa lehenbailehen aurkeztuko dietela, eta uste dute kudeaketa honen gainbehera bideratzen hasteko benetako neurriak hartzeko ordua dela. Kudeaketa kontuarekin bat datoz beste alderdiek aurreko urteetan eginiko oharrekin, izan ere, ez baitator urte jakin batetik, baizik eta atzeko urteetatik, eta bertan, bere iritziz, jende asko dago erantzukizunak dituena.

Ayuntamiento hacía, a lo que hay que decir que a veces ponen los informes de los técnicos en el altar y otras veces los dejan escondidos en el cajón. Esta es la realidad que refleja la liquidación al Presupuesto 2008 que se propone. Hay que hacer frente al nuevo ejercicio 2009, en principio no tienen conocimiento de que esté avanzado el borrador del Presupuesto que según establecen los plazos de la Norma Foral debiera haber entrado en vigor en enero de este año y ya están prácticamente en abril. Creen que si los Grupos Políticos entienden que el Ayuntamiento está en una situación delicada, deberán empezar a adoptar medidas de carácter estructural que les ponga en otra situación de cara a la ejecución del Presupuesto del año 2009. Es evidente que con la inercia que se lleva de otros años, la capacidad del Ayuntamiento para hacer frente a obras para mejorar las condiciones de vida de los ciudadanos del municipio es prácticamente nula. La inercia es que va a menos, en el año 2008 el gasto corriente ha subido un 8% y sin embargo, el ingreso corriente ha descendido dos puntos, y en ese sentido, lo que ésta situación está exigiendo es una reflexión profunda y seria sobre como abordar el gasto corriente para que pueda posibilitar una acción del Ayuntamiento de cara a dar satisfacción a esas necesidades que plantean y a la mejora del nivel de vida de los vecinos del municipio. Esperan que el borrador del 2009 se presente lo antes posible y que se empiecen a adoptar las medidas que

realmente son necesarias para encauzar la deriva de esta gestión, y en esto comparte la apreciación hecha por otros Partidos en años anteriores, que no viene de un año en concreto, sino de la gestión de años atrás y aquí mucha gente tiene sus responsabilidades.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du bera bat datorrela aurrekontuak arrazoizkoak, aztertuak, pentsatuak, etab. izan behar dutela esaten dutenarekin, izan ere, halaxe egiten direla uste baitu. Bere iritziz premisa bat dago, zeina nahiz eta aitatzen den, ez da kontuan hartu nahi. Hau da, Errenteriako Udala ez liteke burbuila batean sartuta egon eta bizitzen ari diren hondamendi ekonomikotik at egon. Erakunde oro, enpresak eta partikularrak jasaten ari badira krisi-eraso hau, nola ez du igarriko bere baliabide propiotik bizi ez den Errenteriako Udalak? Baliabide propioak aitatzen dituenean herritarrei kobratzen zaizkien zerga, tasa, etab.i buruz ari da. Jakin, denek badakite, horien bidez jasotzen dena udal aurrekontuaren zati txiki bat baino ez dela. Eta gainontzeko diru-iturriak agortzen badira, nola ez da nabarituko kudeatzeko garaian, galdetu du. Hau inguru hurbilean zein urrutian gertatzen ari den kontua da, eta badirudi, hori ez dela ikusi nahi. Berak ez daki 2008ko Aurrekontua onartzeko egin zituzten aurreikuspenak zoragarriak edo baliagarriak ziren, baina gero krisiak dena hankaz gora jartzeko

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que comparte el aspecto de que los presupuestos tienen que ser racionales, estudiados, pensados, etc., pero eso es lo que se hace. Hay una premisa, que aunque se menciona, no se quiere tener en cuenta, y es que el Ayuntamiento de Errenteria no puede estar en una burbuja y vivir al margen de todo el cataclismo económico que se está viviendo. Si todos los entes, las empresas, los particulares, las instituciones, están notando este vendaval, ¿cómo no lo va a notar el Ayuntamiento de Errenteria, cuando no vive de sus propios recursos?. Cuando dice sus propios recursos se está refiriendo lógicamente a los impuestos, tasas, etc., que se cobran a la ciudadanía. Todos saben que eso es una parte menor de lo que supone el presupuesto municipal, y si las otras fuentes se secan, ¿cómo no se va a notar en la gestión?. Esto está pasando aquí en todo alrededor tanto cercano como lejano y eso es lo que parece que no se quiere contemplar. No sabe si serían maravillosas o válidas las previsiones que hicieron y que se sometieron a votación para el Presupuesto 2008, pero luego la crisis ha supuesto unas variaciones

